

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua:	396/2009 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko maiatzaren 6koa, 1081/2006 (EE) Europako Gizarte Funtzaren arautzeko Erregelamendua aldatzen duena EGIFek diruz lagun ditzakeen kostu-motak gehitzeko
--------	---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*REGLAMENTO (CE) N° 396/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 6 de mayo de 2009, por el que se modifica el Reglamento (CE) n° 1081/2006 en lo que respecta al Fondo Social Europeo para ampliar los tipos de costes subvencionables por el FSE*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 126 de 21/05/2009)

396/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 126 2009/05/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

396/2009 (EE) Erregelamendua Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena

2009ko maiatzaren 6koa

1081/2006 (EE) Europako Gizarte Funtsaren arautzeko Erregelamendua aldatzen duena EGIFek diruz lagun ditzakeen kostu-motak gehitzeko

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatua aztertu dute, bereziki, Tratuaren 148. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertuta [1],

Aldez aurretik Eskualdeetako Komiteari kontsulta eginda,

Tratuaren 251. artikuluan finkatutako prozedurari jarraituz [2],

Honako hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamenduak, 2006ko uztailaren 11koak, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari eta Kohesio Funtsari[3] buruzko xedapen orokorrak ezartzekoak, 56. artikuluan agintzen du nazio bakoitzak emango dituela zer kostu lagunduko diren eta zer kostu ez diren lagunduko erabakitze arauak. Horren salbuespen izango dira Eskualdeko Garapenerako Europako Funtsarentzat eta Europako Gizarte Funtsarentzat (EGIF) aurrez ikusitakoak.

(2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1081/2006 (EE) Erregelamenduko 11. artikuluko 3. paragrafoak arautzen du zein gasturekin jaso ahal izango den EGIFeko diru-laguntza, lehen aipatu dugun erregelamenduaren 11. artikuluko 1. paragrafoan zehaztutakoari jarraiki.

396/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 126 2009/05/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(3) Finantza-krisiaren ondorioz, komeni da EGIFek kofinantzatutako diru-laguntza eskuratzeko prozedura gehiago erraztea.

(4) Europako Kontuen Auzitegiak, 2007ko urteko txostenean, etorkizuneko gastu-programak berrikusteko gomendatu zien agintaritzari legegileei eta Batzordeari, eta, berariaz, diruz lagun daitezkeen gastuak kalkulatzeko moduak errazteko aukerak aztertzeke aholkatu zien, eta gehiago baliatzeko osotarako hainbesteko bat edo ehuneko jakinak ordaintzea, "kostu errealak" ordaindu beharrean.

(5) EGIFen laguntza jasotzen duten eragiketak kontrolatzeko eta administrazioak egin beharreko kudeaketak errazten direla bermatzeko, batez ere, emaitzetan oinarritutako diru-itzulketaren sistemari loturik daudenean, beharrezkoa da diruz lagun daitezkeen kostuen bi forma gehitzea; hau da, kopuru global bakarrak eta unitate-kostuen baremo estandarrei erreparatuta finkatutako ehuneko jakinak.

(6) Diruz lagunduko diren gastuen segurtasun juridikoa bermatzeko, EGIFen laguntza guztiei aplikatu behar zaie prozedura erraztua. Atzerako eraginez aplikatu behar da prozedura erraztu hori; hau da, 2006ko abuztuaren 1etik aurrera, 1081/2006 (EE) Erregelamendua indarrean sartzen den egunetik.

(7) Hala, beraz, 1083/2006 (EE) Erregelamendua aldatu behar da.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. Artikulua

Honela aldatuko da 1081/2006 (EE) Erregelamenduko 11. artikuluko 3. paragrafoa:

1) b) idatz-zatiaren ordean, ondoko testu hau jarriko da:

“b) laguntzen kasuan:

i) hainbesteko baten gainean aitortutako zeharkako gastuak, eragiketa baten gastu zuzenen % 20 bitarte, gehienez ere,

ii) baremo estandarreko unitate-kostuen bidez kalkulaturako hainbesteko finkoko kostuak, estatu kideak zehazten duenari jarraituz,

iii) eragiketa baten kostuak osoki edo zati batean estaltzen dituzten osotarako zenbatekoak.

2) Paragrafo hauek gehituko dira:

“Elkarren artean konbinatu ahal izango dira b) idatz-zatiko i), ii) eta iii) puntuetako aukerak, haietako bakoitza diruz lagun daitezkeen kostu-kategoria bati dagokionean edo eragiketa berdinen barnean, berdina ez diren proiektuetarako izendatzen direnean.

Aldez aurretik finkatuko dira b) idatz-zatiko i), ii) eta iii) puntuetan xedatutako kostuak, bidezkoa, zuzena eta egiaztagarria den kalkulua eginez.

Azkenik, b) idatz-zatiko iii) puntuan aipatutako zenbatekoa ez da 50.000 eurotik gorakoa izango.

2. Artikulua

Erregelamendu hau Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Dena den, 2006ko abuztuaren 1etik aurrera izango da aplikagarria.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

396/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 126 2009/05/21ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

Europako Parlamentuaren izenean

Lehendakaria

H.-G. Pöttering

Kontseiluaren izenean

Lehendakaria

J. Kohout

[1] 2009ko otsailaren 25eko irizpena (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

[2] Europako Parlamentuaren irizpena, 2009ko apirilaren 2koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko maiatzaren 5koa.

[3] L 210 EO 2006/07/31koa, 25. or.

[4] L 210 EO 2006/07/31koa, 12. or.